

## 1. MAILA

## 2. MAILA

## 3. MAILA

## 4. MAILA

## 1.5.1. Indarrean dagoen araudia betetzea eta ikastetxeko langile guztiek betetzen dutela bermatzea.

Zuzendaria ikastetxeari atxikitako langile guztien buru da.

Araudia betetzen da eta betearazten da.

Araudiaren arabera dagokion zeregina, ekitaldi eta organoak deitzea, betetzen du.

Zuzendariak arreata gutxi ematen die koordinazio- eta gobernu-organoean hartutako erabakiei.

Araudia betearazten da, eta betetzea errazten duten prozedurak ezartzen dira.

Kide anitzeko organoen erabakiak eta gobernu-erabakiak errespetatzen eta errespetarazten dira.

Ikastetxeko dokumentuetan araudi orokorra zehazteko alderdiak arautzen dira.

Araudia eta kide anitzeko organoen eta gobernu-organoen erabakiak betetzean orekatzen dira hezkuntza-komunitateko sektore desberdinen eskubideen errespetua eta eginbeharren betetzea.

Ekintza zehatzetan ikusten da zuzendaritzaren esku-hartzea bat datorrela ikastetxe-proiektuekin (IHP, ICP, AJA...), lerro estrategikoekin eta ikastetxearen urteko planarekin (IUP).

Kide anitzeko organoek eta gobernu-organoez hartutako erabakiak, ikastetxearen kudeaketa egokia bideratzen dutenak, praktikan jartzeko zuzendaritzak egiten dituen ahaleginak ekintza zehatzetan nabarmentzen dira.

Zuzendariak aitortzen du eta hezkuntza-komunitateari jakinarazten dio eragiten dion araudiaren xedea, eta haren premia argudiatzen du.

Zehaztasunez ezagutzen du eta arazoei aurrea hartzen die.

Eskubideen eta betebeharren oreka jardueren funtsezko ardatza da.

Zuzendaritzak lortu du hezkuntza-komunitate guztiak ikastetxe-proiektuak, lerro estrategikoak, ikastetxearen urteko plana eta kide anitzeko organoek zein gobernu-organoez hartutako erabakiak ezagutzea, partekatzea, eta haien arabera jardutea.

## 1.5.2. Ikastetxearen helburuen, lorpenen eta bideratzeko dauden erronken hedapen sistematikoa. Jardunbide egokiak komunikatzea eta partekatzea.

Jomugak eta erdietsitako lorpenak ez dira sistematikoki zabaltzen eta jakinarazten. Irakasle edo koordinazio-lantalde bakoitzaren esku-hartzearen eremuan soilik ageri dira, baina ez zuzendaritzaren ikastetxe osorako helburu bezala.

Urteko memorian jasotzen dira lortutako xede eta helburuak, eta zuzendaritzak koordinazio- eta gobernu-organoean jakinarazten ditu. Bideratzeko dauden errorei buruzko ondorioak ateratzen dira.

Zuzendaritzak ikastetxeko jardunbide egokiak jakinarazten ditu, eta, koordinazio-taldeen eta irakasle guztien bidez, beste eremu batzuetan aplikatzea sustatzen du.

Jardunbide egokiak eta hobetzeko proposamenak hedatzeko prozedurak ezarri dira, jokabide horiek aztertze eta irakasleen eta koordinazio-lantaldeen ohiko jardunean txertatze aldera, hartara hezkuntza-eragile guztien inplikazioa eta parte-hartzea sendotzeko.

Ezarritako hedapen- eta komunikazio-prozeduren ondorioz, ikastetxeko lorpen eta helburuak bereganatzen eta aitortzen ditu hazkuntza-komunitate guztiak, eta ikastetxearen identitatearen adierazle dira.

Aldian behin ebaluatzen da prozedura horien eraginkortasuna, hezkuntza-komunitate guztiari eta kanpoko eragileei lorpen eta helburu horien berri emateko.